



PROPOSAMENA

Orokorrean, ebaluazioa zerbaiten balioa zehazteko burutzen diren jarduera sistematikoen multzoa da, ebaluatzen den horri buruz aurrez ezarritako helburuak bete diren aztertuz eta horiek lortze aldera erabaki zuzenak hartuz.

“Euskaldunak eta itsasoa” ikasmaterialak honetan bi jarduera-eredu proposatzen dira, bakoitza bere ebaluatzeko teknikekin:

1. Testa: ikasmaterialean eskaintzen diren edukien eta ikus-entzunezkoen ezagutza noraino ulertu diren jakiteko 10 galdera-erantzunez osatutako ariketa da. Ikasleak modu autonomoan nahiz taldean egin ahal izango du, beti ere irakaslearen lan-metodologiaren arabera. Kasu honetan ebaluazioa berehalakoa da, izan ere testeko galdera-erantzun bakoitzean, emaitza zuzena den edo ez esango digu ariketak.
2. Talde-dinamikak: webguneko edukien gainean planteatutako taldean landu beharreko ariketen ebaluazioa bi norabidetakoa izango da: batetik, ikasleak berak autoebaluazio- eta koebaluazio-fitxen bitartez bere lana eta taldearena neurtzeko prestatua dago; bestetik, irakasleak ikasleak baloratu ahal izango ditu konpetentzia-fitxa eta aurretik ezarritako balorazio-irizpideen bitartez.

KRONOGRAMA

6 orduko proiektua da, betiere ikasleen erritmoaren araberakoa. Zatika ere erabil daiteke, nahierara.

Talde dinamikei dagokienez, bakoitzari ordubete eskaintzea aurreikusten da.



EBALUAZIO-FITXAK


Ikasleentzako ebaluazio-fitxak hauek dira:

Autoebaluazioa

Ikasleak berak bere jardunari buruz egiten duena ebaluatzeko eta gainerako ikaskideekin partekatzeko, autoebaluazio-itua erabil daiteke. Ebaluatzeko metodo hau parte-hartzailea da, oso bisuala, eta landu nahi den proiektuaren hainbat alderdiri buruz ikasleek duten iritzia ezagutzeko aukera ematen du.


Nola betetzen da autoebaluazio diana bat? Zirkulu zentrokideak marraztuko dira, barrutik kanpora. Azaltzen diren ezaugarrien betetze- edo egokitze-maila adierazten dute. Zirkulu zabalenaren inguruan, aztertu behar diren elementuen izenak jarriko dira (ikusitako irudia, adibide gisa), eta, itua osatzeko, horietako bakoitzari dagokion zenbakia idatziko da. Horrela, azkenean, puntuak lotuz, ebaluazio-mapa deritzona lortuko da. Hemen duzue adibide sinple bat. Marra bakoitzak ezaugarri bat adieraziko du:

Autoebaluazioa-diana



Inprimatzeko irudia eskuragarri dago, ikasleak autoebaluazioa egiteko.

Ebaluazioa



Autoebaluazioa

Nola sentitu zara talde-ariketan? Neurtu lorpen-maila, irakasleak paperean eman dizun auto-ebaluazioa dianarekin. Begiratu zer neurtzen duen dianaren zati bakoitzak eta markatu letik 4ra zer puntutaraino lortu duzun helburu hori (behean dituzu puntuazio bakoitzaren balioak). Bukaeran, lotu 4 puntuak, eta marraztu sortu duzun azalera (nahi izanez gero, azalera koloreztatu dezakezu). Hori izango da zure lorpen-maila. Zenbat eta zenbaki altuagoa izan, orduan eta handiagoa izango da azalera. Aldi berean, zuk lortutako helburuak ere altuagoak izango dira.

1.- Gutxi


2.- Nahiko

3.- Asko

4.- Ikaragarri

*Gaiaren gaineko
interesa piztu zait.*

*Gaiari buruzko ikasteko
aukera eman dit.*



*Informazioa bilatzen
jakin izan dut.*

*Ikasitakoa adierazteko
gai izan naiz.*

Ebaluazioa



Koebaluazioa

Talde-lana ebaluatzeko tresna dugu koebaluazioa. Taldeko kide bakoitzak bere aldetik baloratuko du taula honetan proposatutako kategoria bakoitza. Ondoren, emaitzak bateratuko dituzte, eta puntu onenak eta hobetu beharrekoak elkarrekin komentatuko dituzte.



Ebaluazioa



KATEGORIA	Oso egokia	Egokia	Oinarrizkoa	Desegokia
1. Parte-hartzea eta lankidetzaz	Taldeko kide guztiak parte hartu dute talde-dinamikan, eta besteei lagundu diete.	Taldekide gehienek parte hartu dute zereginetan eta besteei lagundu diete.	Taldeko kideen erdiak parte hartu du zereginetan eta besteei lagundu die.	Taldeko kide batek bakarrik (edo batek ere ez) parte hartu du zereginetan, eta ez da lankidetzarik egon.
2. Zereginen banaketa	Zereginak zuzen banatu dira taldeko kide guztien artean.	Zeregin gehienak berdintasunez banatu dira taldekide guztien artean.	Zereginen erdia baino ez da zuzen banatu taldekide guztien artean.	Zereginak oso modu desberdinean banatu dira taldeko kideen artean.
3. Beste taldeekiko jarrera	Zeregin guztietan taldekideek haien iritziak eman dituzte eta besteenak entzun dituzte. Akordio batera iristeko gai izan dira.	Zeregin gehienetan, taldekideek haien iritziak eman dituzte eta besteenak entzun dituzte. Akordio batera iristeko gai izan dira.	Zereginen erdietan taldekideek haien iritziak eman dituzte eta besteenak entzun dituzte. Akordio batera iristeko gai izan dira.	Ez da elkarriketarik izan, eta, azkenean, pertsona bakar baten iritzia nagusitu da.
4. Erantzukizuna	Taldeko kide guztiak haien zereginak eta erantzukizunak bete dituzte.	Taldeko kide gehienek haien zereginak eta erantzukizunak bete dituzte.	Taldeko kideen erdiek haien zereginak eta erantzukizunak bete dituzte.	Taldeko kide batek bakarrik (edo batek ere ez) bete ditu bere zereginak eta erantzukizunak.

Ebaluazioa



Balorazioa

(Markatu X karratu egokian)

1. Parte-hartzea eta lankidetzaz

- Oso egokia
- Egokia
- Oinarritzkoa
- Desegokia

2. Zereginen banaketa

- Oso egokia
- Egokia
- Oinarritzkoa
- Desegokia

3. Beste taldeekiko jarrera

- Oso egokia
- Egokia
- Oinarritzkoa
- Desegokia

4. Erantzukizuna

- Oso egokia
- Egokia
- Oinarritzkoa
- Desegokia



Irakasleentzako ebaluazio-fitxak hauek dira:

Konpetentzien ebaluazioa

Talde-dinamika guztietan landuko diren konpetentziak:

1. Talde-dinamika: webgunean aztertutako nabigatzaileen ibilbideak ezagutzea eta haien ekarpenak balioan jartzea.

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia

2. Talde-dinamika: Aro Modernoko itsas merkataritzak euskal ekonomiari eta kulturari egindako ekarpena ulertzea.

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia

3. Talde-dinamika: itsasoari lotutako lanbideek marineletan zuten eragina ezagutzea eta herrian zuten familietan uzten zuten eraginaz jabetzea.

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Ebaluazioa



Kompetentziak ebaluatzeko irizpideak

	Bikain	Oso ondo	Ondo / Nahiko	Eskas
Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna	Oso ondo hautatzen du informazioa. Gaitasun handia du informazioa sailkatzeko, gordetzeko, laburtzeko eta hedatzeko.	Informazio oso adierazgarria hautatzen du, eta oso ondo sailkatzen eta laburtzen du. Oso modu egokian zabaltzen du informazioa.	Informazioa bilatzeko zailtasunen bat du. Askotan ez du ondo laburtzen edo adierazten.	Garrantzitsua ez den informazioa hartzen du. Ez du ondo laburtzen, eta garrantzirik gabekoa azpimarratzen du.
Elkarbizitzarako konpetentzia	Besteak entzuten ditu eta errespetua die.	Oso ondo lan egiten du taldeka. Enpatikoa da eta beste laguntzen die.	Taldean lan egiten du, baina ez beti.	Ez du taldea kontuan hartzen.
Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia	Plangintzabikaina bere lanetan. Proposamen berritzaileak egiten ditu. Gogo handiz egiten du lan.	Oso ideia onak ditu eta proposamenak egiten ditu. Gogo handia adierazten du.	Ideia bat ekartzen du. Gorabeheratsua da, eta batzuetan proposamenak egiten ditu.	Ez du ideiarik ekartzen, ezta proposamenik ere.
Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia	Alde komunikatiboak bikain ulertzen ditu eta primeran komunikatzen da hitzez edo baliabide digitalekin.	Komunikatzeko maila ona du ahoz eta baita baliabide digitalekin ere.	Batzuetan zailtasunak ditu komunikatzeko ahoz. Baliabide digitalak erabiltzea kostatzen zaio	Komunikazio mota ezberdinetan gabeziak ditu.
Norbera izaten ikasteko konpetentzia	Bikain kudeatzen ditu emozioak. Bere emozioen kontzientzia du. Ikasitakoa bikain hedatzen du.	Ikasitakoa oso ondo kudeatzen du, baita bere emozioak ere. Bere burua ezagutzen du.	Askotan galtzen du emozioen kontrola eta erraz deskonektatzen du. Batzuetan ez du autoebaluazio ona egiten.	Ez daki auto-ebaluatzen, eta emozioen kontzientzia eta kontrola hobetu behar lituzke.

Ebaluazioa



Irakaslearen ebaluazioa

Irakasleak balorazio-irizpide hauek kontuan izanda, talde bakoitzaren lana ebaluatuko du:

- HELBURUAK: adostutako helburuak bete diren.
- EDUKIAK: sakontasuna, kohesioa, ulergarritasuna, originaltasuna.
- HIZKUNTZA: zuzentasuna, aberastasuna.
- AURKEZPENA: Ikusgarria, dinamikoa, erakargarria.



Ebaluazioa



Irakaslearen ebaluazioa

HELBURUAK

Balorazioa

Iruzkinak

- 1
- 2
- 3

EDUKIAK

Balorazioa

Iruzkinak

- 1
- 2
- 3

HIZKUNTZA

Balorazioa

Iruzkinak

- 1
- 2
- 3

AURKEZPENA

Balorazioa

Iruzkinak

- 1
- 2
- 3